


Lehiaketako kirol jarduerak

B I Z K A I A


2 0 0 9



2 0 1 0



Eskola Kirola
Deporte Escolar



Bizkaiko Foru Aldundiaren 119/2009 Foru Dekretua, uztailaren 28koa, Bizkaiko Eskola Kirola programak 2009/2010 denboraldian izango duen arautegia ematen duena.

Azken urteotan, Kultura Sailaren bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiak kirolean jarduteko ohitura sustatu du Bizkaiko Lurralde Historikoko ikasleen artean.

1998ko ekainaren 11ko 114/1998 Legeak, Euskadiko kirolari buruzkoak, honako hau adierazten du 5. artikuluan: *“Lurralde historikoetako foru organoei dagokie, zeini bere lurralde esparruan, eskumen hauek erabiltzea: Euskal Autonomia Erkidegoko eskola kirolaren arloko arauak garatzea udal administrazioaren lankidetzarekin gauzatzea”*.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak 2008ko uztailaren 1ean emaniko 125/2008 Dekretuak, Eskolako Kirolari buruzkoak, 14/1998 Legea garatzen du eskolako kirolaren arloan, eta, horrela, 1990eko ekainaren 5ean emaniko eskolako kirolari buruzko 169/1996 Dekretua ordeztzen du. Dekretu honen bidez, 14/1998 Legeak diseinaturiko eskolako kirolaren eredia ezarri nahi dugu, Kirolaren Euskal Kontseiluak landu eta Eusko Jaurlaritzak onartutako Euskadiko Kirolaren Plana 2004-2007 delakoan jasotako jarraibideen arabera.

Horrez gainera, gorago aipatu den eskolako kirolari buruzko dekretu horrek honako hau adierazten du 6. artikuluan: *“... eskola-umeen bilakabide fisiko, psikologiko, intelektual eta sozialen erritmoaren arabera, eskolako kirolaren jarduerak kirolari ekiteko hasierako prozesua bultzatuko dute. Horrekin, haurrak hezkuntza balio positiboak –kirol lehiaketaren balio espezifikoa barne- bermatzen dituzten inguruneetan garatzeko prozesua osatuko da, kirol modalitate ugariaren berri jasotzea sustatuko da, kirol ohiturak sortzea, bizimodu osasungarri batez hezte, eta modalitate ezberdinetako kirolariak eta kirol ikusleak prestatzea. Eskolako kirolaren barruan, gainera, errendimenduan eta helburuetan gora egitea xede duen kirol praktikari ekitea bultzatuko da, haien gaitasun eta jokamoldeengatik hauteman eta aukeratzen diren balizko talentu eta promesak beharrezko teknifikazio-baldintza egokiez baliu daitezten. Errendimenduko kirolaren praktika bultzatzen duen ekimen honek haurraren garapen armoniatsu eta integrala errespetatu beharko du, alegia, haren garapen fisiko, intelektual zein soziala”*.

Horrekin batera, kirol jarduera horren helburu nagusiaren arabera, hiru kirol ibilbide ezberdin ezartzen dira: parte hartzekoa, errendimenduari ekitekoa, eta kirol talentuak eta promesak identifikatzekoa.

Foru dekretu honek kirol ekintza ezberdinak biltzen dituzten kirol ibilbideak ezartzen ditu, Bizkaiko eskola kirola programa osatzen dutenak eta gure lurralde historikoko eskola-ikasleek 2009-2010 denboraldian zehar egin ahalko dituztenak.

Azaldutakoa dela bide, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17, 39 k) eta 64.3 artikuluek diotena ikusirik, eta Kulturako Foru Sailaren Egitura Organikoaren Araudia onetsi zuen uztailaren 26ko 132/2006 Foru Dekretuaren arabera bere dituen betebeharrak eginez Kulturako foru diputatuak proposatuta, eta Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2009ko uztailaren 28ko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DA

I. TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1 artikulua.- Xedea

Foru dekretu honen xedea da arauak ezartzea, Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan 2009/2010 denboraldirako jasota dauden kirol jarduerak arautzeko.

2. artikulua.- Eskumenak

1. Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio eskoletako lehiaketak antolatu, kalifikatu eta baimentzea.
2. Ikastetxeek, Bizkaiko kirol federazioek, tokiko erakundeek, horiei dagozkien erakunde autonomiadunek eta erakunde pribatuek eskolen arteko lehiaketak antolatu ahalko dituzte, honako arlo hauen arabera:
 - a) Ikastetxeek: euren ikasleentzako lehiaketak.
 - b) Bizkaiko kirol federazioek: kadete eta gazte kategorietarako lehiaketak; hau da, 2009/2010 denboraldia bukatzen den urtean 15,16,17 edo 18 urte egingo dituzten ikasleentzako lehiaketak izango dira, eta dagokien federazio-lizentzia izan beharko dute.
 - c) Tokiko erakundeek, horien erakunde autonomiadunek eta erakunde pribatuek: euren lurralde eremuko ikastetxe eta ikasleentzako lehiaketak, aurretiaz jasoa dutela Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Kirol zuzendari nagusiaren baimena.

3. artikulua.- Bizkaiko Eskola Kirola programa.

1. Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan jasotako jarduera guztiak honako kirol ibilbide hauetakoren baten barruan daude:

Kirolean parte hartzea. Ibilbidearen helburu nagusia da aukera ematea eskola-ikasle guztiei kirol eta jarduera fisiko ezberdinetan aritzeko. Horrela, kirolerako ohitura eta bizimodu osasungarria eurenaganatzen lagundu nahi zaie.

Errendimenduari ekitea. Ibilbidearen helburu nagusia da, hala egin nahi duten umeei, erraztasunak ematea errendimenduan eta helburuetan gora egitea xede duen kirol batean hasteko.

Kirol talentuak eta promesak identifikatzea. Ibilbidearen helburu nagusia da haien gaitasun eta jokamoldeengatik kirol talentu edo promesa izan daitezkeela uste den eskola-ikasleak identifikatzea, aukeratzea eta garatzea.

2. Jarduera bakoitzaren helburu nagusiaren arabera, ibilbide batean edo bestean sartuko dira jarduerok.

Bizkaiko Eskola Kiroleko programak honako jarduera hauek jaso ahalko ditu 2009/2010 denboraldian zehar:

Lehiaketa jarduerak hiru motatan banatzen dira, kirol mailaren eta helburuen arabera: **parte hartzekoak, errendimenduari ekitekoak eta lehiaketa murriztuak.**

Parte hartzeko lehiaketak, izenak berak adierazten duen legez, edonork parte hartzekoak dira, eta ez da inolako hautaketarik egingo. Horien helburua da kirol modalitatea hobetzea eta jarduera fisikoa egiteko ohitura hartzea.

Errendimenduari ekiteko jarduerak lehiaketak dira, errendimendu jakin bat lortzeko helburua dutenak, parte-hartzaileak lehiaketa federatuetan sartu ahal izan daitezen, eskola garaia amaitu ostean. Parte hartzeko kupoak ezartzen badira ere, nahiko zabalak dira, interesa duen edozein eskola-umek parte hartu ahal izan dezan.

Azkenik, **lehiaketa murriztuak** ditugu: kirol talde mugatu batentzat sortutako lehiaketak dira. Kirolariak hautatzeko irizpideak kirol modalitate bat egiteko dituzten jarrera eta gaitasun errealak zein potentzialak izango dira. Hain zuzen ere, etorkizunean kirol elitean egon litezkeen pertsonak dira.

Irakaskuntza jarduerak lehiaketatik kanpoko kirol prestakuntzarekin lotutako jarduerak dira.

Prestakuntza horren mailaren arabera, kirol jarduera izan daiteke **hasierako jarduera** (parte hartzea borondatezkoa da, eta kirol jakin batean hasten dira eskola-umeak) edo **teknifikazio jarduera** (entrenamendu-saioak dira, eta kirol jakin baterako gaitasuna dutelako hautatu duten eskola-ume talde bat hobetzeko egiten dira).

Detektatzeko jarduerak saio bakan batzuk dituzten jarduerak dira, eta horien helburua da kirol jakin batean errendimendu ona izateko gaitasun eta jarrera bereziak dituzten eskola-umeak topatzea.

Kirol eta kultur jarduerak, hau da, kirolari lotutako kultur jarduerak (kirol museoetara joatea, kirol baten historia ezagutzea...), eta **aisialdiko jarduerak**, hau da, kirola lehiarik gabe egiten dena (mendi-irteerak, zikloturismoa...).

JARDUERAK (HASTEKO ADINA)	IRAKASTEKOAK	HASIERAKOAK (BENJAMINAURREA)	TEKNIFIKAZIOA (KIMUAK, 2. URTEA)	TEKNIFIKAZIOA (KIMUAK, 2. URTEA)
	LEHIAKETA	PARTE HARTZEKOAK (BENJAMINA)	ERRENDIMENDUARI EKITEKOAK (KIMUAK, 2. URTEA)	MURRIZTUAK (2. URTEKO KIMUAK)
	DETEKTATZEA	1. URTEKO KIMUAK	1. URTEKO KIMUAK	1. URTEKO KIMUAK
	BESTE BATZUK	AISIALDIKOAK, KIROLA ETA KULTURA (BENJAMINAURREKOAK)	AISIALDIKOAK, KIROLA ETA KULTURA (2. URTEKO KIMUAK)	AISIALDIKOAK, KIROLA ETA KULTURA (2. URTEKO KIMUAK)
		KIROLEAN PARTE HARTZEA	ERRENDIMENDUARI EKITEA	KIROLERAKO TALENTUAK ETA PROMESAK IDENTIFIKATZEA
IBILBIDEAK				

4. artikulua.- Parte hartzaileak

- Honako hauek ahalko dute parte hartu Bizkaiko Eskola Kirola programaren 2009/2010eko jardueretan:
 - Bizkaiko Lurralde Historikoan ikasketa ofizialak ematen dituzten ikastetxe guztiak, horietako guraso elkarteak edo horiei atxikitako kirol erakundeak, elkarte-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duten kirol elkarte eta/edo taldeak, eta Bizkaian bizi diren eta/edo Bizkaian eskolatuta dauden neska-mutilak.
 - Gipuzkoa eta Arabako lurralde historikoetan ikasketa ofizialak ematen dituzten ikastetxeak eta lurralde historiko horietako kirol elkarteak eta/edo taldeak. Edonola ere, eskabideak idatziz aurkeztu beharko dituzte, dagokien lurralde historikoan kirol arloan eskumena duen organoaren baimenarekin batera.
 - Araban edo Gipuzkoan bizi diren neska-mutilek ahalko dute izena eman Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruko kirol jardueretan, baina, horretarako, Bizkaiko Lurralde Historikoko zentro, guraso elkarte, kirol elkarte edo talde baten izenean jardun beharko dute eta euren dagokien lurralde historikoan kirol arloko eskumena duen organoaren baimena aurkeztu.
- Kirol batean federazioaren lizentzia duten eskola-ikasleek ezingo dute, lehiaketa jardueren barruan, kirol eta maila horretan bertan izenik eman.

5. artikulua.- Baimenak

Foru dekretu honetan aurrez ikusi ez diren gainerako kasuetan, beharrezkoa izango da Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Kirolen zuzendari nagusiari baimen-eskabidea aurkeztea, hala egin behar dela xedatzen baitu Bizkaiko Eskola Kirola programan jasota ez dagoen edozein egoeratan baimena emateko prozedura arautzen duen foru aginduak.

6. artikulua.- Asegurua.

Programaren barruko kirol jardueretan parte hartzen dutenek aseguru-poliza bat izango dute, Bizkaiko Foru Aldundiak harpidetua, eta poliza horrek honako estaldura hau bermatuko die:

- a) Osasun-laguntzako aseguru, baldin parte-hartzaileak ez badu beste agiri baten bidez laguntza hori jasotzeko eskubiderik.
- b) Erantzukizun zibileko aseguru.
- c) Kalte-ordaina emateko aseguru, parte-hartzaileak galera anatomiko edo funtzionalen bat duenerako, edo —aseguruei buruzko legeriak baimendutako kasuetan— parte-hartzailea hiltzen denerako.

7. artikulua.- Euskararen erabilera.

Jarduerak garatzean, Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzen direla bermatu behar da, eta, batez ere, publizitateari eta dokumentazioari dagozkien alderdi guztietan (gutunak, kartelak, liburuxkak, egitarauak, megafonia...).

II. TITULUA: LEHIAKETA JARDUERAK

8. artikulua.- Lehiaketako araudi orokorra.

Lehiatzeko kirol guztiek lehiaketa araudi orokor bera izango dute, www.bizkaia.net/kirolak web gunean argitaratuko dena.

Lehiaketako araudi orokorrak ezarritako esparruaren barruan talderen bat antolatu ezin duten erakundeek (parte-hartzaile kopuruagatik; eskualde, herri edo sexu irizpideengatik; goragoko edo behegoko kategoria baten parte hartzeagatik, eta abar) kontsulta egin diezaiokete Bizkaiko Foru Aldundiko Eskola Kirolen Atalari (Errekalde zumardia, 30, 1. solairua - Bilbo). Atal horrek ahalik eta lasterren egingo du kasu jakin bakoitzaren gaineko txostena, eta jarduera ahalik eta ondoen garatzeko konponbide egokia bilatuko du.

9. artikulua.- Modalitateak eta parte hartzea.

1. Programan parte hartzen duten erakundeek instalazio egokiak izan behar dituzte izena eman duteneko jarduerak egiteko.
2. Izena eman duten kirolari, entrenatzaile eta ordezkariak lehiaketarako akreditatuko dituen lizentzia jasoko dute. Datu pertsonalez, taldeaz eta erakundeaz gain, lizentziak honako datu hauek jasoko ditu:
 - a) Argazki bat, duela gutxi egina.
 - b) Kirolarien kasuan, gurasoetariko batek edo tutoreak sinatutako agiria, adierazten duena batetik,

haurra kirola egiteko osasun egoera egokian dela eta bere gain hartzen duela horren erantzukizuna, eta, bestetik, onartzen dituela Bizkaiko Eskola Kirola programari buruzko foru dekretuak urte horretako denboraldirako ezarritako gainerako arauak.

3. Lehiaketa guztietan, izena eman duten pertsonak (entrenatzaileek, kirolariek eta ordezkariak) aurkeztu beharko dituzte lizentzia eta agiriak, aurreko agiritan azaltzen diren datuak egiazkoak direla berresteko. Gainera, epaileek eta arbitroek zalantzarik eginez gero parte-hartzaileen adinaz edo nortasunaz, lizentzia eta agiri horiek eskatu ahalko dituzte.
4. Foru dekretu honen 4. artikuluan agertzen diren partaideek (ikastetxe, kirol elkarte, klub eta guraso elkarteak) egiaztatze agiriak aurkeztu beharko dituzte kasuan-kasuan dagokion kirolean izena emateko epearen barruan, euren entrenatzaile eta kirol arduradunek honako titulazio hauek dituztela egiaztatzeko:

a) Zentroko kirol arduraduna:

Kirol titulazioa	Titulazio akademikoa	Beste titulazio batzuk
Herrialdeko entrenatzailea II. maila	Irakasle-ikasketak	Astiaidiko hezkuntza jardueren zuzendaria
Entrenatzaile nazionala III. maila	Natur ingurunean kirol jarduera fisikoak bideratzeko erdi mailako zikloa Heziketa Fisikoko Irakaslea Gorputz eta kirol-ekintzen animazioko goi mailako zikloa Gorputz Hezkuntza liz.- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan liz.	

b) Entrenatzaileak:

Kirol titulazioa	Titulazio akademikoa	Beste titulazio batzuk
I. mailako bloke orokorra	Beste diplomatura batzuk	Astiaidiko hezkuntza jardueren begiralea
Begiralea I. maila	Beste lizentziatura batzuk	Animazio soziokulturaleko goi maila
Herrialdeko entrenatzailea II. maila	Animazio soziokulturaleko goi mailako zikloa Pedagogia Psikologia Gizarte-hezitzailea	Astiaidiko hezkuntza jardueren zuzendaria
Entrenatzaile nazionala III. maila	Irakasle-ikasketak Natur ingurunean kirol jarduera fisikoak bideratzeko erdi mailako zikloa HFko irakaslea Gorputz eta kirol-ekintzen animazioko goi mailako zikloa Gorputz Hezkuntza liz.- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan liz.	

TITULAZIO BAT AURREKO DENBORALDIREN BATEAN AURKEZTU BADA, EZ DIRA BERRIRO AURKEZTU BEHAR HORI EGIAZTATZEKO AGIRIAK.

Baldin denboraldian zehar beste entrenatzaile edo kirol arduradun batzuei alta ematen bazaie, horien titulazioa izena emateko unean egiaztatu beharko da.

Lehiaketa amaitu aurreko bi (2) hilabeteetan zehar izena ematen duten entrenatzaile edo kirol arduradunak ez dira kontuan hartuko diru-laguntzetarako.

5. Lehiaketek iraun bitartean, taldekako eta banakako kirolean, aldaketak egin ahalko dira osieran. Horretarako epea modalitate eta maila horretan izenak emateko azken egunaren ondoko lau (4) hilabeteak izango dira, baina inoiz ezingo dira egin lehiaketaren azken hilabetearen barruan.

6. Taldekako kirolean, erakunde parte hartzaileek (kirol taldeek, ikastetxeek, guraso elkarteek) beste erakunde batzuetan ikasten duten kirolarien izenak eman ditzakete, baldin honako betekizun hauek betetzen badituzte.

Kirolariak/ek ikasketak egiten dituen/dituzten ikastetxeak kirol modalitate, maila eta sexu bererako izena eman badu, kirolariaren izen-deiturak jasotzen dituen idatzia aurkeztu behar da, eredu ofizialaren arabera (1. eranskina), ikasketak egiten dituen ikastetxearen zigilua eta ikastetxeko zuzendariak edo/eta kirol arduradunak sinatua.

Kirolariaren ikastetxeak EZ badu izenik ematen kirol modalitate eta maila bererako, erakunde jasotzaileak ikastetxe horretako kirolarien izenak eman ditzake. Kultura Saileko Kirol Zerbitzuak datu horiek berretsi edo/eta egiaztatzeko eskubidea izango du.

Ikastetxeei dagokionez, taldeko kirolarien % 35 gutxienez izan behar dira ordezkatzeko duten erakundeko ikasle, baldin erakunde hori bada taldera kirolari gehien dakarrena.

7. Banakako kirolean, erakundeek beste ikastetxe batzuetan matrikulatutako kirolarien izenak eman ditzakete, baldin ikastetxe horiek kirol modalitate berbererako izena ematen EZ badute. Kultura Saileko Kirol Zerbitzuak datu horiek berretsi edo/eta egiaztatzeko eskubidea izango du.

Kirolariak/ek ikasten ari den/diren ikastetxeak kirol modalitate, maila eta sexu bererako izena eman badu, kirolariaren izen-deiturak jasotzen dituen idatzia aurkeztu behar da, eredu ofizialaren arabera (1. eranskina) eta ikasketak egiten dituen ikastetxearen zigilua eta ikastetxeko zuzendariak edo/eta kirol arduradunak sinatua.

8. Jardueren esparrua izango da Eskola Kirolari buruz Eusko Jaurlaritzak 2008ko uztailaren 1ean emaniko 125/2008 Dekretuak (uztailaren 16ko EHAA) finkatzen duena.

9. Hona hemen deialdi honetan eskainitako lehiaketa jarduerak:

HERRI KIROLAK	11ko FUTBOLA
KIROL ANITZEKO JARDUERA	GIMNASIA ARTISTIKOA
AEROBICA	GIMNASIA ERRITMIKOA
XAKEA	GIMNASIA TRANPOLINA
ATLETISMOA	HOCKEYA
SASKIBALOIA	PATIN HOCKEYA
7ko ESKUBALOIA	GURPIL-LERROKO PATIN HOCKEYA
5eko ESKUBALOIA	JUDO
BEISBOLA	KARATEA
MENDIKO LASTERKETAK	IGERIKETA
TXIRRINDULARITZA	IGERIKETA SINKRONIZATUA
KROSA	PADELA
KIROL ESKALADA	PATINAJE ARTISTIKOA
ALPETAR ESKIA	PATINAJE LASTERKETAK
MENDIKO ESKIA	ESKUPILOTA
ESGRIMA	ZESTA-PUNTA
FRONTENISA	PALA
ARETO-FUTBOLA	TRINKETA
7ko FUTBOLA	PIRAGUISMOA

ARRAUNA
ERRUGBIA
SURFA
TAEKWONDOA
TENISA
MAHAI-TENISA

ARKU-TIROA
TRIATLOIA
BELA
HONDARTZA-BOLEIBOLA
BOLEIBOLA
WATERPOLOA

10. Entrenatzaileak, modalitatearen arabera:

10.1. Taldeka lehiatzeko jarduerak:

Talde bakoitzeko entrenatzaile baten izena eman behar da nahitaez, eta entrenatzaile laguntzaile bat ere izan ahalko da talde bakoitzeko.

Entrenatzaile nagusi bat eta laguntzaile bat egon ahalko dira gehienez ere. Entrenatzaile laguntzailea da hezkuntza- eta entrenamendu-saioak (entrenamenduak eta lehiaketak) diseinatu, zuzendu eta egiten laguntza eta lankidetzak eskaintzen duen pertsona, entrenatzaileak horiek egin ezin dituenean.

10.2. Banakako lehiaketa jarduerak

Kirol bakoitzeko entrenatzaile baten izena eman behar da nahitaez; izena emandako 10 kirolariko entrenatzaile bat izan daiteke, eta 5 entrenatzaile izan daitezke gehien jota.

10.3. Inork ezingo du entrenatzaile gisa izena eman, denboraldia bukatzen den urtean gutxienez 17 urte betetzen ez baditu.

11. Kategoriak:

11.1. Honako hauek izango dira Bizkaiko Eskola Kirola programaren lehiaketa-jardueren kategoriak:

BENJAMINAK: 2000/2001ean jaiotakoak.
KIMJAK: 1998/1999an jaiotakoak.
HAURRAK: 1996/1997an jaiotakoak.
KADETEAK: 1994/1995ean jaiotakoak.
GAZTEAK: 1992/1993an jaiotakoak (*).

(*) Boleibolean, gazteen kategorian onartuko dira 1991n jaiotakoak.

11.2. Izena eman duten guztiek adinaren arabera dagokien kategorian parte hartuko dute.

11.3. Salbuespen gisa, adinaren arabera dagokienaren goiko hurrengo kategorian parte hartu ahalko dute, honako baldintza hauek betez gero:

- a) Euren kategoriari dagokion azken urtean jaiotakoak izatea.
- b) Taldekako lehiaketa jarduera izatea. 7ko futbola eta 11ko futbola lehiaketa jarduera bat direla ulertuko da. Berdin gertatuko da 5eko eskubaloiarekin eta 7ko eskubaloiarekin, eta boleibolarekin eta 3ko boleibolarekin.
- c) Kategoriatan izena eman duten adingabeen kopurua ez dadila izan taldekide guztien % 50 baino gehiago.
- d) Gurasoetako batek edo tutoreak eredu ofizialaren arabera (2. eranskina) eginiko idazkia, ikasleari adinaren arabera dagokiona baino maila bat gorago parte hartzeko baimena ematen diona eta jarduera horretatik sor daitezkeen arriskuen erantzukizuna euren gain hartzen dutela adierazten duena.
- e) Aurreko kategoriatan kirol horretakoa izatea.

11.4. Kirolarik batek kirol batean dagokiona baino maila bat gorago parte hartzeak ez du esan nahi beste kirol batzuetan lehiaketa jardueretan parteko hartzeko adinez dagokion maila galduko duenik. Hala ere, behin lehiaketa abian dela, kirol horretan ezin izango du adinez dagokion kategorian parte hartu.

11.5. Adinez dagozkienak baino beheragoko ikasketak egiten ari diren kirolariek euren ikasturteko ikasleek osatutako taldean parte hartu ahal izango dute. Hala ere, jokalekuan ezin izango da aldi berean egon ezaugarri horiek betetzen dituen kirolari bat baino gehiago. Horretarako, taldearen izen-ematearekin batera, kirolaria zein mailatan dagoen matrikulatuta adierazten duen egiaztatzea aurkeztu behar da, ikastetxeko zuzendariak edo ikasketa-buruak (3. eranskina) emana.

10. artikulua.- Izena ematea eta lehiaketa egunak.

1. Lehiaketa jardueretarako izena eman nahi duten erakunde guztiek “Erakundeek lehiaketa jardueretan izena emateko orria” (4. eranskina) izeneko inprimakia bete beharko dute. Era berean, “Banakako kirola” (5. eranskina) inprimakia edo “Taldekako kirola” (6. eranskina) inprimakia ere bete beharko dute, izena eman nahi duten kirolaren arabera: lehenengoa, “banaka” parte hartuz gero; eta bigarrena, “taldeka” parte hartuz gero.

2. Izena emateko epeak honako taula honetan ezarritakoak dira:

KIROL JARDUERA	IZENA EMATEKO EPEA		
	HASIERA	AMAIERA	INTERNET AMAIERA
SASKIBALOA E 7ko FUTBOLA A 7ko FUTBOLA E 11ko FUTBOLA A 11ko FUTBOLA E ESKU PILOTA E	IRAILAREN 7a	IRAILAREN 18a	IRAILAREN 20a
SASKIBALOA 7ko FUTBOLA 7ko FUTBOLA B 11ko FUTBOLA 11ko FUTBOLA B ARETO FUTBOLA	IRAILAREN 7a	URRIAREN 02a	URRIAREN 04a
KIROL ANITZEKO JARDUERA ATLETISMOA/KROSA 7ko ESKUBALOA 5eko ESKUBALOA PATIN-HOCKEYA IGERIKETA IGERIKETA SINKRONIZATUA ZESTA-PUNTA ESKU PILOTA B ESKU PILOTA D PALA ARKU-TIROA 3ko BOLEIBOLA BOLEIBOLA WATERPOLOA	IRAILAREN 7a	URRIAREN 23a	URRIAREN 25a
ESGRIMA FRONTENISA TRINKETA	IRAILAREN 7a	URRIAREN 23a	URRIAREN 25a

AEROBICA	IRAILAREN 7a	ABENDUAREN 11a	ABENDUAREN 13a
BEISBOLA			
ORIENTAZIO LASTERKETAK			
KIROL ESKALADA			
GIMNASIA ARTISTIKOA			
GIMNASIA ERRITMIKOA			
GIMNASIA TRANPOLINA			
HERRI KIROLAK			
KARATEA			
PATINAJE ARTISTIKOA			
PATINAJE LASTERKETAK			
PIRAGUISMOA			
TAEKWONDOA			
TENIS			
MAHAI-TENISA			
GURPIL-LERROKO PATIN HOCKEYA			

XAKEA	IRAILAREN 7a	URTARRILAREN 15a	URTARRILAREN 17a
PADELA			
JUDO			
ARRAUNA			
ERRUGBIA			
HOCKEY A			

TXIRRINDULARITZA	OTSAILAREN 5a	MAIATZAREN 21a	MAIATZAREN 23a
SURFA	IRAILAREN 7a	EKAINAREN 4a	EKAINAREN 6a
HONDARTZA-BOLEIBOLA		MAIATZAREN 7a	MAIATZAREN 9a
BELA			

3. Lehiaketa jardueren hasiera eta amaiera.

Hasiera	Amaiera
Lehiaketak, izena emateko epea amaitu, eta 15 egun geroago has daitezke	<p>Todas las actividades de competición del programa de deporte escolar finalizarán en el mes de mayo de 2010, excepto las competiciones de ámbito interterritorial así como las actividades cuyo desarrollo se lleva a cabo en los meses de verano:</p> <ul style="list-style-type: none"> - CICLISMO el 26 de septiembre de 2010. - VOLEY PLAYA el 4 de julio de 2010.

4. Baliadun ez diren egunak.

Honako hauek ez dira lehiaketa jarduerak egiteko egun baliaduntzat hartuko:

- 2009ko abenduaren 5a, 19a eta 26a.
- 2010eko urtarrilaren 2a.
- 2010eko apirilaren 3a eta 10a.

5. Eskabideak KIROL ETXEAn aurkeztu behar dira (Jose Maria Escuza kalea, 16, Bilbo-48013). Salbuespenak dira beisbola, txirrindularitza, judoa, karatea, piraguismoa, errugbia eta tenisa, zeren

horiek bakoitzari dagokion Bizkaiko kirol federazioan aurkeztu behar baitira (Jose Maria Escuza kalea, 16, Bilbo-48013) edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 38-4. artikuluan xedatutako eran.

Surfaren eta hondartza-bolebolaren kasuan, norberak eman dezake izena proba egiten deneko egun berean; beraz, parte-hartze hori ez da kontuan hartuko Bizkaiko Eskola Kirola programan parte hartzeagatik diru-laguntzaren bat emateko orduan.

Eskabideak ez baditu eskatutako baldintzak betetzen, 10 eguneko epea emango zaio erakunde interesdunari, egin dituen akatsak zuzendu edo dagokion dokumentazioa aurkez dezan, eta, horrekin batera, jakinaraziko zaio, hala egiten ez badu, ebazpena eman, eta atzera egindakotzat joko dutela, eta artxibatu egingo dutela bere eskabidea.

Nahitaezkoa da izena ematea, eta, adierazitako tokian eta epearen barruan egin ezik, ezin izango da lehia-jardueretan parte hartu.

Hala ere, eta antolakuntzari kalterik egiten ez badio, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak epez kanpo aurkeztutako izen-emateak baimendu ahalko ditu.

Epez kanpo egindako izen-emateak Bizkaiko Eskola Kirola programan ematen diren diru-laguntzetatik kanpo geratuko dira. Laguntza horiek Bizkaiko Foru Aldundiak ematen ditu programa hori arautzen duen arautegi honetan oinarritzen diren lehiatzeko kirol jardueretan parte hartzeagatik.

Ikasleek talde batean (taldekako kirol modalitateetan) edo erakunde batean (banakako kirol modalitateetan) baino ezingo dute izena eman kirol bakoitzean. Hala ere, foru dekretu honetan ezarritako arau eta epeen barruan, nahi duten beste kiroletan eman ahal izango dute izena.

11. artikulua.- Diziplina araudia.

Diziplina atxikitzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Sailak 1996ko irailaren 20an emaniko 2.578/96 Foru Aginduan jasotako diziplina araudia ezarriko da (1996ko urriaren 3ko BAO, osteguna, 192. zk.). Foru agindu horren bidez, Bizkaiko eskolako kirol-jokoei aplikatu beharreko diziplina araudia onartu zen.

12. artikulua.- Errendimenduko lehiaketei eta/edo lehiaketa murriztuei buruzko berezitasunak.

Gorago zehaztutakoez gainera, errendimenduko lehiaketetarako eta/edo lehiaketa murriztuetarako, honako baldintza hauek bete beharko dira:

Horietan parte hartzen duten erakundeek, agiri bat aurkeztu beharko dute egiaztatzen duena erakundeak nahikoa kalitate duten instalazioak dituela, bai entrenamendu-saioak egiteko bai partidak jokatzeko. Lehiaketetarako araudi orokorrean ezarriko dira deialdian jasotako kirol bakoitzean eskatuko diren gutxieneoak.

Izena eman duten kirolariek honako agiri hauek erantsi beharko dizkiote izena emateko eskabideari:

- a) Kirolariaren NANA (jatorrizkoa eta kopia).
- b) Kirolariaren erroldatze-agiria.
- c) Kirolariaren argazki digitala, duela gutxi egina.

Errendimenduko lehiaketetako eta lehiaketa murriztuetako entrenatzaileek honako kirol titulazio hau aurkeztu behar dute gutxienez:

- a) Kirol horretako 1. maila edo baliokidea.
- b) Kirol horretako eskualdekoa edo baliokidea.

- c) Jarduera Fisiko eta Kirolaren Zientziako Lizentziaturako hirugarren ikasturtea, lehiaketaren hasieran onartutako kirolarekin zerikusia duten gaiekin.
- d) Heziketa Fisikoko Lizentziaturako hirugarren ikasturtea, lehiaketaren hasieran onartutako kirolarekin zerikusia duten gaiekin.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko Futbol Federazioak zehaztuko dute zein den parte hartuko duten taldeen kupoak. Gehieneko kopuru hori gaindituz gero, honako irizpide hauek erabiliko dira taldeak aukeratzeko:

- a) Erakundeak zer aurrekontu, giza baliabide eta baliabide material jarri dituen E lehiaketako eskola-taldeentzat.
- b) Udalerriko/eskualdeko gainerako ikastetxe eta taldeekin dituen lankidetzako itunak eta hitzarmenak.
- c) Kirol egitura horrek haurren, kadeteen eta gazteen kategorietan dituen jarraipena eta kirol-maila.
- d) Erakundeen eskualdekako banaketa homogenea eta orekatua izatea.
- e) Salbuespen gisa, kontuan hartuko dira kimuen eta haurren kategorietako emaitzak.

Errendimenduko lehiaketetan eta lehiaketa murriztuetan parte hartzen duten erakundeek parte hartzeko eskubidea gal dezakete honako kasu hauetan:

- a) Bizkaiko Foru Aldundiak baimendu ez dituen jarduerak antolatu, horietan lagundu edo parte hartzen badute.
- b) Kultura eta Turismo Sailak 1985eko uztailaren 29an emaniko Aginduaren 24, 33 eta 34. artikuluetan xedatutako balizkoren bat gertatzen bada. Agindu hori eskola kiroleko lehiaketen diziplina araudiari buruzkoa zen.

Eskubide hori kirol denboraldi baterako galduko da gutxienez.

Errendimenduko lehiaketak eta/edo lehiaketa murriztuak urte berean jaiotako eskola-ikasleen artekoak izango dira. Ez da inolako baimenik emango, ikasle nagusiagoek horietan parte har dezaten.

III. TITULUA: IRAKASKUNTZA JARDUERAK

13. artikulua.- Kirolean hasteko jarduerak

Hona hemen 2009/2010 denboraldirako deitu diren hasierako jarduerak:

FEDERAZIOA	JARDUERA
XAKEA	HASTAPEN I.
ARRAUNA	HASTAPEN I.
URPEKO JARDUERAK	URPEKARITZA: HASTAPEN I.
ESKRIMA	HASTAPEN I.
EUSKAL PILOTA	ZESTA-PUNTA
HOCKEYA	HASTAPEN I.
HÍPIKA	HASTAPEN I.
GOLFA	HASTAPEN I.

FEDERAZIOA	JARDUERA
MENDIA	ESKALADA: HASTAPEN I.
	MENDIA ETA ORIENTAZIOA: HASTAPEN I.
	MENDIKO ESKIA
PADELA	HASTAPEN I.
ARRANTZA	HASTAPEN I.
PIRAGUISMOA	HASTAPEN I.
SURFA	HASTAPEN I.
ARKU-TIROA	HASTAPEN I.
BELA	HASTAPEN I.

Honako helbide honetan emango dute jarduera bakoitzari buruzko informazioa eta bertan egingo da izena emateko prozesua:

KIROL ETXEA
Tel.: 94-4410900
Faxa: 94-4418165
Jose María Escuza, 16, BILBO

14. artikulua.- Teknikazio jarduerak

2009/2010 denboraldian zehar, teknikazio jarduerak egingo dira honako kirol hauetan:

- XAKEA
- SASKIBALOA
- ESKUBALOA
- NEGUKO KIROLAK
- GIMNASIA
- KARATEA
- IGERIKETA
- TAEKWONDOA
- MAHAI TENISA

Kirol bakoitzak Bizkaian duen federazioan emango dute jarduera bakoitzari buruzko informazioa eta bertan egingo da izena emateko prozesua.

IV. TITULUA: BESTELAKO JARDUERAK

15. artikulua.- Aisialdiko jarduerak.

Hona hemen 2009/2010 denboraldirako deitu diren aisialdiko jarduerak:

- AERODANCINGA
- ESKIA: EGUNEKO IRTEERAK
- ESKIA: ASTEBURUKO IRTEERAK
- ESKIA: IZOTZ GAINEKO PATINAJEA EGITEKO IRTEERAK
- MENDI-IRTEERAK
- AEROMODELISMOA
- SURFJAIK
- KIROL ANITZEKO JARDUERA EGOKITUA

Kirol bakoitzak Bizkaian duen federazioan emango dute dagokion kirolari buruzko informazioa, eta bertan egingo da izena emateko prozesua:

FEDERAZIOA	JARDUERA	ERAKUNDE PARTAIDEA		HELBIDEA	Tel. zk.	Fax zk.
		IKASTETXEA	CLUB			
KIROL EGOKITUA	KIROL ANITZEKO JARDUERA EGOKITUA	I	T	Jose M ^a Escuza, 16 (BILBO)	944413181	944413181
NEGUKO KIROLAK	ESKIA: EGUNEKO IRTEERAK	I	T	Jose M ^a Escuza, 16 (BILBO)	944411063	944419961
	ESKIA: ASTEBURUKO IRTEERAK					
	IZOTZ GAINEKO PATINAJERAKO IRTEERAK					
GIMNASIA	AERODANGA	I	T	Jose M ^a Escuza, 16 (BILBO)	944413834	944413834
MENDIA	IRTEERAK	I	T	Iparragirre, 46 (BILBO)	944431734	944443562
AIREKO KIROLAK	AEROMODELISMOA/ KOMETAK	I	T	Jose M ^a Escuza, 16 (BILBO)	944446090	
SURFA	SURFJAIK	I	T	Jose M ^a Escuza, 16 (BILBO)	944423960	944421012

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bakarra.- Ahalmena ematen zaio Kultura Saileko foru diputatuari, foru dekretu hau garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu, eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2009ko uztailaren 28an

Ahaldun Nagusia
JOSE LUIS BILBAO EGUREN

Kulturako foru diputatua
MIREN JOSUNE ARIZTONDO AKARREGI

